



MUGAGABEA

- mugen arteko hitzak-
beatriz chivite ezkieta

bestehitzak
|||

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



otherwords
|||

Omonia Plaza

Gelditasuna eta abiadura
Aldamioz eta plastiko berdez
estalita dago Plaza

itzalean
usoak
geldirik

inguruan
kotxeak bueltaka
dabiltza
motoak ziztu bizian
taxi horiak
txistuka

itzalean
usoak ere
geldirik

zementuaren gainean
haiek itxaroten daude
irmo begiratzen naute
begiratzen ditut
begiratzen dugu elkar
esertzen naiz
haiek bezala itxaroten

itzalean
usoak ere
geldirik

jatorria bai
baina helbiderik
ez duen
ume talde batek
esku jolasetan
dabiltza
iskin batean

txaloen soinuarekin

usoek
hegan egiten dute
baina beste haiek
ez dituzte

hegalik.

Linbo edota denbora mugak

Zebra-bideen
marra txurien artean
saltoka ibiltzea
gustatzen zitzaizun
hanka tartean uzten zenuen
hutsunea sentitzeko.

Estolda zuloak
zapaltzen zenituen
zure oinpean
hedatzen zen
sakontasuna
sumatzeko.

Momentu izoztuen
artean dantza
egin nahi zenuen

esaldi luze baten
koman

lo egin,

haurraren mainen
hasperen bortitzean

otoitz egin.

Atea itxi
eta zure arnasa
bitan zatitzen den
momentuan

ihes egin.

Arraultza apurtzen den unea
amaigabea izatea
nahi zenuen

mugagabea.



Beatrix Chivitek ez du bere burua seguru markatu **gizarte misoginoan**
Mendebaldeko eskuin politiketan
amodioan
Mediterraneoko errefuxiatu krisialdian
media gezurretan eta madalena nazkagarrietan
gogogabezia
arte munduko gazte langabezia
eurian

Home

Auzo txinatarrean nabilela
bilatzen ditudan zati batzuk
aurkitzen ditut

turista italiarren
abestietan ere
etxearen piezak
aurkitzen ditut

hiri baten
auzo bakoitzean
nire sutondoaren
zati bat
aurkitu nahi dut

nire etxearen
puxka galduak aurkitzeko
ez ditut mugik
gurutzatu nahi.

Laranjaren Oda

Laranja
hutsik dagoen
azafrai lata bat da
lurrin freskua
eguzkia hondarrear
mertxikondo baten itzala
ulu bakarti bat
Veneziako Spritza
Irlandarraren bizarra
whisky eta ezia
historiaurreko erretxinean
harrapatuta gelditu diren
eltxoak.

Laranja
unea pasa ondorengo
mementua da
laranja leherketa da
laranja
inoiz esan behar ez litzatekeen
hitzak
xuxurlatzearen
indarkeria da

dena laranja
izan beharko luke.

Zuriaren oda

Sotoan lehortzen den
arroparen usaina,
esnatzerakoan
zure ahoaren
zaporea
eta moja zaharraren
kuleroak
txuriak dira.

Esan ez den guztia,
borobil baten barrena,
nire amonaren oroitzapena
eta jasmin te hotza ere
txuriak dira.

Txuriak dira nire bularrak
udaberrian
zerua marratzen duten
hegazkinen aztarnak
azalik gabeko lycheea
eta nire amaren hilea ere
txuria da.

Txuria da
Mediterraneoan gurutzatzen
hiltzen diren
gorputzen azala
estaltzen duen
gatza.

Horiaren oda

Korridorean txistuka
ari da norbait.

Kilkerrak.
Eta zure begiak
irribar egiterakoan
horiak dira ere.

Dantza arin bat
izar iheskorra
desertuan trompeta
eta limoizko poloa

zure aitaren pareta
horia da.
Liztorraren ziztada.

Baratzean korrika dabilen
hiru urteko neskaren
garrasiak horiak dira.

eskola huts batean
biolinaren soinua

garagardoa horia da
zalantza ere horia da
lore-hautsez zikindutako
behatz finak,
erretzaile eta poeta
zaharraren hortzak
eta garia ere horia da.

Horiak dira
esaldi koldarrak
adulterio eta hilketen
zukua
horia da iskanbila

lapurtxoriaren habia
politikarien kutxa.

Urdinaren Oda

Ahopean irakurritako poesia
urdina da
apirileko arratsaldeetan
esloveniako sukaldeak
urdinak dira.

Iturrian
zure begiradaren
isla
urdina da.
Haurtzaroko egunak
eta eskutartean
gordetzen dituzun
ahabiak ere
urdinak dira.

Zure ilorde kutunena,
urdin kolorekoa da.

Elizara sartzen den
argia,
Japoniako grabatuak,
oso garestia den
lihozko soinekoa,
imanaren kantua
eta hutsik dagoen
igerilekua ere
urdinak dira.

Urdinak dira
Europako hegoaldeko
enparantza baten
espaloian
lotan dagoen
neskatoaren
ezpain
izoztuak.

Gorriaren oda

Lauraren laztanak
gorriak dira
baita bere oinak
uda garaian.

Egin berria den zauria
gorria da.
Gorria da ardo ona
eta jenio txarra ere.

Gaueko hirugarren orgasmoa
gorria da
poema on bat ezin idaztearen
amorrua gorria da.
Gorriak dira hileko azkeneko egunak.

Paper gainean eta nire ahots gainean
egiten dituzun zuzenketak ere
gorriak dira.

Nire tanpoiak gorriak dira
nire mihi gaiztoa
eta nire etxeko
mahai-zapia.

Altzairuzko mahaiaren gainean
emandako ukabilkada gorria da
jendetzaren artean
entzun diren tiroak
eta tenpluaren pareta.

Mediterraneo itsaso odoldua
gorria da

krispetak lehertzen
diren momentuan
gorriak dira

gorriak izango gara guztiok
esnatzerakoan.

Uda

Ai! Hainbeste eguzki
lerro hauen artean
hainbeste argi galdu
paper honetan.

Irudia

Harresien gainean etzan egin naiz
haurrek begiratu eta esaten dute:

- zapatak kendu ditu
- eguzkia hartzen ari da
- erre egingo da
- erori egingo da.

Zorriak

Iritsi nintzenean
zorriak ere zeuden
hotelean

eta zutaz oroitu nintzen
ahizpa txikia
zure etengabeko azkuraz.
uretzako ez ziren parasitoak
inkilinoak baizik.

Erne mantentzen
zintuzten
zure pentsamenduei
kilimak egiten zizkieten

agian zure hiperaktibitatea
zure animalien
jauzi eta musuak
besterik ez zen

zergatik ez zaizkigu
gustatzen
esnatzen gaituzten
bisitariak?

Berdearen Oda

Koldoren behiek
ez dakite
lerro ikustezinaren
alde bakoitzera hedatzen den
belarra bereizten

dena berdea da
hain berdea

berdea

bustia eta bizirik.

Zabaldu

Plataformaren gainean
ezezaguna den guztia
zabal-zabalik dago
gure aurrean.

Amodioa

Zure emaztea
bart ohetik erori zen

tabernan jazz musika
entzuten duzuen bitartean
goian dagoen hanka
laztantzten duzu.

Zenbat aurpegi ikusten ditugu egunero?

Begira, horko bikote hura
jatetxe batean eseri
eta ez dute elkar begiratzen
ez dute hitz egiten
aspertu dira jada, baina beldur dira

begira, hilzorian dagoen
txakurrari musuka dabil
atso zahar hori
txakurrak gorroto dio
baina hark ez daki

begira, esnegain izozkiak
jaten dituzten bi gizon potoloek
haien lanpostuak galdu dituzte
haserre daude
eta zu, haien izozki erraldoiei
inbidia diezu

zenbat aurpegiak egiten dute
negar isilunean?
mundu mutuen artean dago bizitza
hitz go(go)rren artean.

Arintasuna

Nire ohean egiten zenuen lo
baina mundu oso batek bereizten gintuen
nire ohean egiten zenuen lo
baina horma batek zatitzen gintuen

nire ohetik joan zinen
eta nire munduan sartu
nire ohetik joan zinen
eta arintasunak horma
etzanarazi zuen.

Munduak

Zure pantaila grisaren atzean
aire honetan bidaiatzen duten
zaporeak eta laztanak izkutatzen dira

kosmosen hegan egin
eta pixelatutako irudi honetan
hitz eten
eta kargatzen ez diren
itxuretan agertzen dira.

Horma

Mailu gogor batekin
horma apurtzen duzu

hitz zorrotz batekin
isilunea

laztan gozo batekin
beldurra

pantaila argi batekin
begirada.

Paretan ez dago Chiara ti amorik

Txikia nintzenetik
kalean zehar ibiltzerakoan
begi irekiekin idatzitako hitzak
irakurtzen ditut

hasieran amarekin ahoskatzen nituen
gero nahi gabe nire buruan

nahi gabe doministikuarekin begiak ixten ditugun bezala
nahi gabe kotxean lokartzen garen bezala
nahi gabe diskotekan gure bihotzaren taupadak azkartzen diren bezala
nahi gabe

hormetan
seinaleetan
lurrean
kotxe zikinetan

farmatzia
Zara
Bus station
Independentzia
Chiara ti amo

Hegazkinetik jaisterakoan
ezin izan ditut inguratzen ninduten
hitz horiek irakurri
eta bapatean
bakarrik sentitu naiz
bakarrik
hutsik
galdurik
dena hor zegoen
baina hitzak falta ziren.

farmatzia
Zara
Bus station
Independentzia
Chiara ti amo.

Noruntz

Izenik gabeko geltoki batean
jeitsi egin zara

ez zeukan platafomarik
gari zelaien erdian

trenetik jeitsi den bakarra zinen
maletarik gabe
poltsarik gabe

eta ibiltzen hasi zara

ibiltzen

eguzkia lotara joaten den
norabiderantz.

Puxkak

Putz eta putz egin
ulatutako flotagailua
puztu nahian

beherutz doazten
eskailera mekanikoetan
goruntz korrika ibili

jada joan egin den
trenaren zain egon
agian inoiz iritsi
ez den trena.

Tintarik gabeko
boli batekin idatzi
agian inoiz tintarik
izan ez duen bolia.

Desegiten den
mundu bat
besoekin besarkatu
again betidanik
deseginda egon den
mundua

uretara botako naiz
flotagailurik gabe
urperatu

edo agian ez

eskailerak jeitsiko ditut
eta behetik begiratuko dut

olerki bat izateko
zatituegia dagoen
mundua

deskribatuta izateko
izkutatuegia dagoena.

Transgresioa

Markatutako lerrotik
harago joan zaitez
lerrorik gabe
ez dago transgresiorik
transgresiorik gabe
ez dago lerrorik

muga
bere lurralde
mugagabea
barneratzen da

bukaerarik gabe
mugimenduan dago
muga

umeeak
arearen gainean
gatzelua
eraiki dute

olatuak
basatasunez
bultzatu eta
lurralde ezezaguna
hartzen du

gatzelu bat daukan
lurralde lehorra

bustitako area
gogortzen da
urak
markatutako muga
apurtzen du
lurra eta ozeanoaren
arteko
muga.

Nola idatzi?

Ez dakit
olerki ironikorik
idazten

ez dakit
olerki erromantikorik
idazten

ez dakit
olerki postmodernorik
idazten

ez dakit
olerkiak
idazten

errealitateak
bortitz
jotzen nauenean
begiak ixten saiatzen naiz
baina irekita
mantentzen ditut

gogor ikusterakoan
mututzen naiz

zer esan
nezake?
zein hitz
izan daiteke
hainbeste samin
leuntzeko gain?

argia?

Zuen 'ni'ak

Nork arraio
entzun nahi du
nire ni-poetiko

bakoitza
berearekin

zuen 'ni'- ak
lapurtu nahiko nituzke

eta nire 'ni'a
desagertarazi

bakarrik zuen
ahotsak
abestu dezaten

momentuoro
isilaraziak
baina ez isilpean
egiten duten bezala.

Hotela

Tabako makinaren erloju elektroniko gorriak
dardaraka dabil
segunduero beldurrez pizten da
denboraren morroi

eulia laranja zuku makinaren gainean dago
iskinean gizon lodi bat telefonoari begira
emazteak, oraindik erdi lo,
kiwia jaten du
plastikozko goilara batekin.

Musika mantso eta anonimoa entzuten da
horrelako hotel anonimoentzat konposatua.

Gizona logelara bueltatzen da
komunean sartu eta dutxa ondoren
eskuohialak lurrera botatzen ditu
bestela ez dituztela garbitzen dio

logelaren zoruan area dagoela
sentitzen du
behatz tartean

ondoko gelaren atea ixten da

buffetean euliak oraindik
ez du laranja zukua bukatu
bitaminak galduko ditu

erlojua oraindik beldur da

denborak ere area dauka
behatz tartean

eulia erlojuaren gainean
lokartzerakoan
zenbakiak ez dute jada
denbora neurtzen
bere taupadak baizik.

Hesiaren ihesi

Nola hezi
ehiza hegaztiak
gezirik gabeko
eta arantzaz betetako
hesietatik ihes dezaten?

Ez eutsi etsipenari
ezin da zerua hetsi.

Jeitsi eta sinetsi
etzi zelaiak itxi zituzten
harresiak
hautsi dira
errauts dira jada.

Gerezi hazi berezi bat
hazten hasi da
hesiaren bestaldean.

Ahorik gabeko emotikonoa

Katuak jan egin dizu mihia

ez duzu hitzik esaten
ezta irribarrik egiten

ez zara beldur
ez duzu malkorik

begiak besterik ez dituzu

non galdu zenuen zure hizkuntza?
zein izan zer murmurikatu zenuen
azken hitza?
nola abesten diozu zure buruari?

Kamioilariari

Zure kamioiaren
atean itsasita
dago emakume bat
bikini ñimiño batekin

gaur beroa egiten du
eta kola
desegiten hasten da
iskinetatik
abuztuan jada ez da
hemen egongo
hondartzan egongo da

gaur Uztailak 17 da
zure alabak
hiru urte betetzen ditu
baina
han, zu zauden
izenik gabeko lekuan
ez daukazu koberturarik

aurrera begira
zeruertz lerroak
labana bat bezala
bi kiwi garratzetan
zatitzen ditu
zure begiak.

Abdori

Nire pasaporteak erakusten dizut
2019 epean iraingiko du
eta Borgoina kolorekoa da

azalean ezin da irakurri
zein herrialdekoa den
ezin da armarrak ikusi
baina borgoina kolorekoa da

orriak zigilatuta daude
eta iskinetan
migrazio animalien
eta garraio historikoen
marrakiak ageri dira
borgoina kolorekoa da.

begiratu eta laster
bueltatzen didazu

nire pasaporteak
zure alaba Viannaren
irribar gozoa baino
ate ikustezin gehiago
irekitzen ditu
borgoina kolorekoa delako.

“Beatrix come fast to Athens”

Nor naiz ni
honaino zergatik etorri zaren
galdetzeko?
zure erlijioari
eta jada hilda dagoen ahizpari buruz
hausnartzeko?

“I want to talk about it but not by texting”

Emakume txuri inozo baten begiak ditut
garagardo gehiegi eguzkipean hartu dituenaren
azal beltzarana
eta nire poltsan dauzkadan
bi poesia liburuek
pertsone sakona naizela
sentiarazten laguntzen naute

“writer in residence”

batzuetan, buruan zapi bat jartzerakoan
Afganoa dirudidala esaten dut
baina ez, baina ez
baina ez, ostia!

nire NAN txartelan
txuria naiz
eta zuei buruz idazten dut

gaizki sentitzen naizelako
ezer egin gabe
zer egin jakin gabe

gaizki sentitzen naiz
eta zuen sufrimendu
madarikatuari buruz idazteko
gai naizenaren akatsean
erortzen naiz.

Amona

Ezer gutxi dakit zutaz
ile-apaintzaile izan zinela badakit
zure lagunak baino altuagoa zinela
asteazkenetan txokolate
beltz- beltza ematen zenidala.

Ezer gutxi dakit zutaz
'txalo-txalo' eta 'sagutxu'
euskaraz esaten zenituen
eta gaztelera ez zeneukan
ez Tuterako, ez Iruñako
ezta Bilboko azenturik

ezer gutxi dakit zutaz
zure bildots zopak
izugarri gustatzen zitzaizkidan
eta zure zinema eta irakurtzeko grinak
jarauntsi ditut

ezer gutxi dakit zutaz
zure aita 'gaztelu bat bezain altua' zen
1943an bere besotartean
lehenengo aldiz Bilbon
hartu zintuenean
izutu egin zinen
nor zen gizon hura?

Ezer gutxi dakit zutaz
1936an
hilabeteak besterik
ez zenituenean
zure ama eta zu
egurrezko itsasontzi batean igo
eta Frantziara joan zineten
aita atzean gelditu zen
nor zen gizon hura?
zu nor zinen?

Amona, ezer gutxi dakit zutaz

Lorategia

Lorategiko ateak
itxita daude neguan
aurten onddo batek
etxeko landareetaz jabetu da
pinua, astigarra, izpilikua...
ereinotza bakarrik
bizirik irautea lortu du

uda iritsi da
eta nire amak
ate guztiak ireki ditu

kaleko atea beti dago
irekita

norbaitek sartu nahi badu
sartu dadila – esan ohi du
liburuak besterik ez ditu aurkituko
irakurtzea
ondo letorkio

Mafiosoari

Dirudun bihurtu zara
sasikume!

Gauean
betazalak ixterakoan
iluntasunean
plastikozko txalupari eutsiz
lurra bilatzen dituzten
begiak ikusten dituzu

haietaz ahaztu den lurraren bila
kulunkatzen dituen itsasoan
isilpean
bakarrik isilpean
batzuetan
otoitz egiten dute

biharamunean Punta Canara zoaz
oporrak igarotzera.

Microsoft Wor(L)d

Agian, Again bihurtzen da
zurekin edo Sure, king
bakarrik, bakery
otoitz, otitis

eta nola ez,
beste hitzak

best Hits

Azafatari

Jada inork ez zaitu begiratzen
jada inork ez zaitu entzuten
90.eko hamarkadan
hain dibertigarria zen
koreografia hark
jada ez gaitu berotzen

jada ez gaituzu
irribar egiten
sartzerakoan
eta ez diguzu
ura ezta izozkirik
ematen

baina jada ez duzu
ile luzerik izan behar
jada ez zara
derrigorrez
neskato polit bat
besterik ez

edo gutxienez
hala espero dut

Urte bat langabezian

Edo erdilangabezian
langabezia ere ez da
bi aste hemen
beste bat han
baina zergatik kexatzen zara
zuri bizitza hau
gustatzen zaizu, ezta?

ordenagailuaren aurrean esertzen zara
artikulu ironikoak irakurri eta
facebook messengerren idatzi.

Biennale eta Documentari buruz
nire iritzia ematen dizudan bitartean
makarroiak gehiegi egosi ditut
joder Bea, gaur egin behar zenuen gauza bakarra.

Goma antzeko zerbait bihurtu dira
eguzki hau ukitzen duen guztia bezala
zure burmuina bezala

aa, joan zaitetz komuneko papera erostera
eta garagardo bat edan ezazu
bai, garagardo bat.

Eman

Zuk odola ematen duzu
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
hark arroza ematen du
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
berak soinekoak ematen ditu
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
gu jostailuak ematen ditugu
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
haiek denbora ematen dute
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?

eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
nork oparituko luke hemen jaiotzearen zortea?
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
nork oparituko luke gure euria?
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
nork oparituko luke gure bizitza lasaia?
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
nork oparituko luke dronik gabeko zeru urdin hau?
eta Facebooken 'like' botoiari ematen diogu. Share. Eta gero, zer?
nork oparituko luke gure pribilegioa?

MediterraneOH

OH

odol ibaiak

Oh

itxaropena odoletan

Oh

bihotzak zukutzen

Oh

non daude olibondoak?

Oh

soilik ura

ur gazia

Oh

hainbeste Ulises

hainbeste Moises

Oh

itsasoa ireki ezazue

lurra zabaldu

guztiok ibili ahal dezagun.

Esparru hutsak

Nazi kontzentrazio-esparruei buruz
idatzi du norbaitek jada
hutsik, lazturaren denboran paralizatuta.

Chernobileko herri hutsei buruz
idatzi du norbaitek jada
munduaren amaieran paralizatuta.

Mediterraneo itsasoaren hondartzei buruz
oraindik ez dugu nahiko idatzi
plastiko, marmoka eta salbamendu-jaka laranjaz beteta dauden
Mediterraneo itsasoaren hondartzak.

Europako soro hesituei buruz
oraindik ez dugu nahiko idatzi
kanpin-denda eta burdin hariz beteta dauden
Europako soro hesituak

burdinean peluxe, kotoi, egarri eta etsipena.

Aduanaren txakurra

'Hola guapa,
hau ez zara zu
argazkian baino
politagoa zara'

kliska egiten didazu

bakarrik
nire argazkia
eta nire titiak
begiratzen dituzu

'buen viaje'

nik bidaiatzen dut
ni expat bat naiz

nire amona
erbesteratua
nire laguna
errefuxiatua
nire auzotarra
etorkina

hitzak, bakarrik hitzak
ez galdetu zer garen
galdetu nor garen.

Beltzaren Oda

Gauak ez dira beltzak
urdin ilunak dira
eta batzuetan
okre kolorekoak

hitzik gabeko
egun guztiak
beltzak dira

frutarik gabeko goizak
beltzak dira
baita begi-niniak eta
tunelen hasierak.

Petroleoa beltza da
petroleo madarikatua
hondartz orbanduak beltzak dira
eta pneumatikoen hilerriak
baita ere.

Dronak beltzak dira
leherketaren kea
beltza da
behatzen gaituzten pantailak
beltzak dira.

Ezereza eta infinitua
beltzak dira
beldurra beltza da
eta iluntasunean
zure begi-niniak
bezain sakona den
mina ere
beltza da.

Maribor, Europa

udako goizetan
Europako enparantza batean
esertzen naiz

kafe esnea eta txokolatzeko kruasana
hartzen dut
ijjitoek 'Besame mucho'
eta 'Les Champs Elysses'
jotzen dute akordioarekin

dendetako banatzaileek kamoiak deskargatzen dituzte
zerbitzariak zigarro bat pizten du atearen ondoan

turistek zer egin erabakitzen dute
txolarreek mokokatzen dute

motxila handiko ikasleek
asteburuari buruz hitz egiten dute

emakumeak erosketak eta lore-sorta
txirrindulan eramaten ditu

nire ahizpak whatsappen idazten dit
Baumanen amodio likidoari buruz

Europa, nire Europa, zahar eta amnesiarekin.
Europak nire aitaldeko amonaren aurpegia dauka
Europa nekatuta dagoen emakume zahar bat da

guda eta festa zoroak bizi izan ditu
larruzko beroki bat erosten lortu zuen
eta orain bere sofa marroian atsedena hartzen du

Europa beldurrez bizi da
baina ez daki zeren beldur den
zaharra da, horregatik da beldur

hil egingo denean
nor eseriko da bere sofan?
nor jarauntsiko du bere larruzko berokia?

I.

zuhaitzaren adarrak
muga gurutzatzen du
nongoak dira aranak?

II.

oreinak ez zituen
arantzak ezagutzen
atzo Bodova ondoan
harrapatuta gelditu arte

oreinak ere
hil dira
pasaportetik ere
ez zeukatelako.

III.

marra bat zeharkatu
eta bapatean
aske zara
hurren jolasetan bezala

jokoa irabazi duzu.

Schengen

Behin, behin
herrialde berdina izan ginen
behin ez geneuzkan ezberditasunik
behin anai-arrebak ginen
behin esne berdina edaten genuen
behin liburu berdina irakurtzen genituen

behin hori ez dago hain urrun

Gero banandu ginen
ezberditasunak nabarmendu genituen
ni ez naiz hangoa
zu ez zara hemengoa
zer esan nahi du 'han'?
zer esan nahi du 'hemen'?

Sentilj

Igarobide bat da Sentilj
gose naiz
errepide ondoko pizzeria batera
zuzentzen naute

zerbitzariak begi alferra dauka
musika pop balkanikoa irratian
eta ketchup pote erraldoia mahai gainean

minigona eta tatuajez beteriko pare bat bikote

Yucatan izeneko prostituzio etxea
eta kanpoan aparkatuta
alokatzeko limusina txuria

supermerkatu merke bat
eta etxe bakoitzaren ondoan
su-egurra ere badago Sentiljn

Austriako matrikulak dauzkaten kotxeak daude
gasolindegia eta mendirantz doazten bideak

uda da
baina haize hotza dabil

udako larunbata aspergarria
pinu egur usaina

bikoteek mobila begiratzten dute
neskak urrezko belarritako lodi erraldoiak
ukitzen ditu
besteak zilborreko pirzinarekin
jolasten du

errepidearen bestaldean
Paloma izeneko banaketa nabea
saltxitxaz beteriko
kamioiak iristen dira segunduoro.

Aurrean laser depilazio zentrua.

Bestaldea

Olerki hau
bi munduen artean dago
iparralde eta hegoaldearen artean

herdoildutako burdin ari
baten arantzetan
zintzilikatuta dago

hesian itxoiten du
harresiaren zementuan
lokartuta
hemengoa da
ertzekoa

olerki hau ziurgabetasunez
beteta dago
ezezaguna den guztia
aurrean dauka
ezaguna den guztia
atzean
irmo

olerki hau nirea da
baina zurea ere bai

olerki hau
bestaldera salto egiten
laguntzen gaituen
plataforma bat
da besterik ez

bestaldea zer, nor, non edo noiz den jakin gabe
begiak itxi eta
ezezagunerantz
jauzi egiten dugu.

Tren- kontrolatzailea

Galtza urdinak
eta txapel gorria darama
azala beltzarana
eta begi berdeak

pareta arrosak eta
leihoan loreak dituen
geltoki batean itxaroten du
Esloveniako herrixka txiki batean

Trena iristerakoan
banderatxo igotzen du
trena joaterakoan
ere bai

bera begira
gelditzen da
geltokian
zutik.

Ingeles hizkuntzari

Zuen hizkuntza hitz egiten dut
baina ni ez naiz zuen hizkuntzako
zuen hitzen turista bat besterik ez naiz
atzerritik etorritako espeziekin
ontzen ditut zuen doinuak
nire R-a gogorra da
the Rising sun
iraganeko pausoen zukuarekin
gazitzen dut
zuen hiztegia.

Ispiluak

Ez dut zuri buruz ezer idatzi nahi
zuk hobeto esango zenukelako

ez dut zure erratuta nahi
zure autorretratua baizik.

Bidean ostruka familia bat

Errepidean oinuzik ibiltzen naiz
mantso-mantso
inork ez nau inon itxoiten
orain ez
jada ez
oraindik ez
mugan ez didate pasaporteak eskatzen
ostruka familia batek besterik ez nau begiratzen

ez dago poliziarik
hesiak han daude
orain
jada
oraindik
ez ditu inork zaintzen
ez ditu inork kentzen

burdin harian norbaitek alkandora ahaztu zuen

nahi gabe Austrian sartu naiz

kamerek
sosegua
kontrolatzen dute

hutsik dauden kanpa dende
plastiko beroaren usaina daukate

gurasoak besarkatzen dituzten
hurrez beteta
irudikatzen ditut

orain hutsik daude
besarkadek ere
muga gurutzatu dute

sosegua grabatzen duten
kamarak
bakarrik
daude hemen.